

1198 – ¿Cómo gestionar emocionalmente el aula? La afectividad en el aula de lenguas (Nola kudeatu eskola emozioen alderditik? Afektibitatea hizkuntzen eskolan)

María del Carmen Méndez Santos – Universidad de Alicante

Ikastaro hau ikaskuntza-egoerak antolatzeari buruzko euren ezagutzak garatu edo finkatu nahi dituzten euskararen irakaskuntzako irakasleei eta profesionalei zuzendua dago, bereziki kontuan harturik hizkuntza baten ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan bizi ohi diren sentimenduekin lotutako alderdiak. Horretarako, psikologiari, hezkuntzari, didaktikari eta neurozientziari buruzko ikerketek eskaintzen dizkiguten erreferentzia-marko teorikoei erreparatuko zaie. Motibazioari, ikas-estiloari, talde-dinamikei eta abarrei buruz hitz egingo da. Horrekin guztiarekin batera, ikaskuntza esanguratsuagoa, eraginkorragoa eta gogoangarriagoa lortzeko gaurgero ikasgelan arrakastaz praktikan jarritako adibideak eta proposamenak eskainiko dira. COVID-19ak eragindako egoera berezia kontuan hartuko da, baita bere ondorioak ere ikasleen motibazioan eta sentimenduetan.

Ikasgela (www.irakasbil.eus > NIRE IKASTAROAK)

Matrikula egin ostean, ataritik plataforma barrura sartu, dagozkizun **erabiltzaile-izena** eta **pasahitza** idatziz. Ikasgela "Nire ikastaroak" sailean aurkituko duzu.

Helburuak

1. Hizkuntzen eskolan afektibitatearen garrantziaz hausnartzea.
2. Arlo hau lantzen duten teoriari buruzko oinarriko kontzeptuak ezagutzea.
3. Emaiza esanguratsuagoa, gogoangarriagoa eta iraunkorragoa lortzeko, eskola kudeatzeko eta ikaskuntza antolatzeko estrategien berri izatea.

Edukiak

1. Norbanakoaren alderdia hizkuntzen ikaskuntzan
 - Hizkuntza bat ikasteko prozesuari buruzko sarrera
 - Ikaskuntza-eskema
 - Aldagai pertsonalak eta testuinguruari lotutakoak
 - "Norbanakoen desberdintasunak" kontzeptuari buruzko sarrera
 - Ikaskuntzarako norbanakoaren aldagaien garrantzia
 - Alderdi sozialen, kulturalen, afektiboen, motibazionalen eta kognitiboen aurkezpena.
 - Irakasteko metodologia
 - Gaitasun komunikatiboa eta eleaniztuna

- *Translanguaginga*
 - Irakaskuntzaren filosofia
 - Irakasleen sentimenduak
2. Alderdi kognitiboa
- Ikasleen alderdi kognitibo, kultural eta sozialen analisi zehatza
 - Arreta
 - Memoria
 - Jarrerak eta usteak
 - Jarduerak
 - Ikas-jardueren diseinu egokiari buruzko hausnarketa
3. Motibazioarekin lotutako alderdia
- Ikasleen motibazioaren garrantzia
 - Motibazio-eredu desberdinen azterketa historikoa
 - Egungo ereduak
 - Amotibazioa
 - Desmotibazioa
4. Afektibitatearen alderdia
- Ikasleen alderdi afektiboaren garrantzia
 - Ikasleen sentipenak
 - Talde-dinamika
 - Denboraren kudeaketa
 - Errorearen zuzenketa

Metodologia

Ikastaroa, nagusiki, praktikoa izango da, eta parte-hartzaileek elkarlanean egingo dituzte jarduerak, irakasle gisa bigarren hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzari buruzko esperientzia-trukaketan oinarriturik. Horregatik, saioetako azalpen teorikoak debateekin, binakako ariketekin eta taldeko eztabaidekin uztartuko dira. Gainera, jarduera praktikoak egingo dira irakasleek beraiek adieraziko dituzten arazo zehatzak konpontzeko, ikastaroaren emaitzak eskoletan aurre egin behar izaten dioten errealitateari estuki lotu dakizkion.

Ebaluazioa

Azken jarduera gisa, hausnarketaren ondorengo saiakera bat idatzi beharko du partaide bakoitzak. Irakasleari igorriko dio, iruzkinak egin ditzan.

Jarduera proposatutako helburuen lorpenari buruzko iritziaren arabera baloratuko da. Honela emango dira balorazioak:

- A (Oso jarduera ona, eskuratutako ezagutzei berrikuntzak eta originaltasuna eranstean dizkie.)
- B (Jarduera ona, proposatutako helburuak kalitatez landu direla adierazten du.)
- C (Jarduera zuzena.)
- D (Proposatutako helburuak gainditu ez izana adierazten du.)
- E (Proposatutako helburua erdiesten parte hartu ez izana adierazten du.)

Ikastaroa gainditzeko beharrezkoa da:

- proposatutako jarduera egitea eta horretan gutxienez C kalifikazioa lortzea
- asistentzia % 80koa baino handiagoa izatea

Bibliografía

- Instituto Cervantes (2011). Qué significa ser un profesor competente de ELE. [Bideoa]. *I Congreso Mundial de Profesores de Español COMPROFES*.
<https://comprofes.es/videocomunicaciones/qu%C3%A9-significa-ser-un-profesor-competente-de-ele> .
- (2011), *¿Qué es ser un buen profesor o una buena profesora del Instituto Cervantes? Análisis de las creencias del alumnado, profesorado y personal técnico y directivo de la institución*.
https://cfp.cervantes.es/imagenes/File/recursos_proyectos/informe_buen_profesor_ele/informe-buen-profesor-cervantes.pdf
- (2013). *Las competencias clave del profesorado de lenguas segundas y extranjeras*.
http://cvc.cervantes.es/ensenanza/biblioteca_ele/competencias/
- Kelly, M. eta Grenfell, M. (2003). *European Profile for Language Teacher Education A Frame of Reference*.
- Méndez Santos, M. C. (2016). Learning by feeling: sentimenduen bidetik ikasi. Gerora gogoratuko diren jardueren diseinu eraginkorra, atzerriko hizkuntzen (AH) eskolan. *eHIZPIDE*, 89.
http://www.ikasten.ikasbil.eus/mod/habecms/view.php/irakasbil/argitalpenak/learning_by_feeling_sentimenduen_bidetik_ikasi